# ERLAUNTZA
# EL ENJAMBRE

Vaivén Producciones estrena **ERLAUNTZA-EL ENJAMBRE**, su nuevo espectáculo.

Esta propuesta tiene su origen en el programa de nuevas dramaturgias Antz3rkiz. Los autores participantes trabajan sus propios textos en los talleres dramatúrgicos, y un jurado hace selección de los mismos. Los elegidos tienen como premio ver su texto puesto en escena.

Kepa Errasti, autor guipuzcoano, ha sido elegido en la segunda edición del programa con EL ENJAMBRE-ERLAUNTZA y Vaivén Producciones ha sido invitada para ponerlo en pie. No podemos menos que sentirnos orgullosos por ello.

Hablamos de una comedia protagonizada por seis actrices de altísimo nivel y prestigio (Naiara Arnedo, Vito Rogado, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia y Leire Ruiz) y dirigida por Mireia Gabilondo, quien no necesita presentación.

Una propuesta fresca, trenzada con mucho humor y emoción.

El espectáculo es una coproducción con el teatro Victoria Eugenia, Teatro Arriaga y Teatro Principal, quienes han adquirido el compromiso con el programa de Antz3rkiz de ser coproductores de las propuestas seleccionadas.

Sinopsis

EL ENJAMBRE Comedia ácida en la que las lágrimas y la risa se entremezclan sin pedir permiso

Un grupo de amigas de la infancia acude a una casa rural para celebrar la despedida de soltera de una de ellas.  Pero los años no pasan en balde y aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o sí…

Lo que a priori iba a ser un fin de semana a lo loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, confesiones, alcohol, droga y un enjambre. Se dice que en el reino animal las abejas son los seres que mejor se comunican. Y al parecer se comunican bailando…





**VAIVEN PRODUCCIONES-**ek bere ikuskizun berria estreinatu berri du, **ERLAUNTZA-EL ENJAMBRE.**

Proposamen honen jatorria dramaturgia berrien Antz3rkiz programaren baitan dago. Programa honetan parte hartzen duten sortzaileek tailer dramaturgikoetan lantzen dituzte beraien testuak eta epaimahai batek aukeratzen ditu gero testu hauetako batzuk. Sailkatutakoen saria beren testua taula gainean ikustea da.

Kepa Errasti sortzaile gipuzkoarra izan da bigarren edizioko aukeratutako bat ERLAUNTZA-EL ENJAMBRE lanarekin eta Vaiven Producciones-i gonbidatu gaituzte taula gainean jartzeko ardura. Oso pozik gaude eskaini diguten aukera honekin.

Komedia hau izen eta maila handiko sei aktorek antzezten dute (Naiara Arnedo, Itziar Atienza/Vito Rogado, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia eta Leire Ruiz) eta aurkezpenik behar ez duen Mireia Gabilondok zuzendu du.

Umore eta emozio handiz jositako proposamen fresko bat da.

Ikuskizuna Victoria Eugenia Antzokia, Arriaga Antzokia eta Gasteizeko Antzoki Zaharrarekin batera ekoitzi dugu. Hiru antzoki hauek konpromisoa hartzen dute Antze3rkiz programan aukeratutako lanak koproduzitzeko.

Sinopsia

## ERLAUNTZA

**ERLAUNTZA : Malkoak eta irriak baimenik gabe nahasten diren komedia mikatza**

Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai…

Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira…



# Algunas críticas



Diario Vasco 2018/09/07

CRÍTICA DE TEATRO

**ROBERTO HERRERO**

# UNA COMEDIA MUY VIVA

**EL ENJAMBRE**

***Autor:*** *Kepa Errasti.* ***Compañía:*** *Vaivén Producciones.* ***Intérpretes:*** *Itziar Atienza, Leire Ruiz, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Sara Cózar, Naiara Arnedo.* ***Dirección:*** *Mireia Gabilondo.* ***Duración:*** *Una hora y quince minutos.* ***Lugar:*** *Teatro Principal.* ***Fecha:****7-9-2018.*

Las despedidas de soltera dan para mucho. Cuando ves a un grupo de chicas por la calle con extraños artilugios en la cabeza resulta un poco vergonzoso, pero también surge la curiosidad por saber cómo acabará esa fiesta que vista desde lo ajeno suele aparentar demasiada alegría como para ser cierto del todo. Las seis mujeres de 'El enjambre' escogen una casa rural para celebrar la fiesta. Hace tiempo que no se ven, unas más que otras. Todas se han hecho mayores, han llegado hijos, han pasado amores, han vivido enfermedades, han viajado demasiado lejos. El tiempo ya no les da ventaja, pero están allí para pasarlo bien y celebrar que una de ellas se va a casar. O no.

Esta es una función de historias tristes contadas con gracia. Es una historia de dramas subterráneos que nos hacen reír. Es una propuesta muy comercial, que acierta en su deseo de hacer pasar un rato muy divertido, en el que las tristezas pasan por el fondo y la comedia explota en primer plano.

Es una obra pequeña y potente. Bastante tópica en su planteamiento, algo que no se convierte en ningún problema porque contiene una consistente dosis de comicidad bien resuelta ya desde el texto y después mejorada con una ágil dirección y unas interpretaciones que ponen la guinda. Las seis actrices están divertidas, con Aitziber Garmendia sacando chispas al personaje más agradecido.

'El enjambre' es una buena comedia. Un drama gamberro, una obra corta y directa que sin rodeos lleva al público por donde quiere.

Berria 2018/07/20

KRITIKA. ANTZERKIA

**Agus Perez**

# Betidanik

**'Erlauntza'**

**Ekoizpen etxea:** Vaiven. **Zuzendaritza:** Mireia Gabilondo. **Egilea eta zuzendari laguntzailea:** Kepa Errasti. **Espazio eszenikoa:** Fernando Bernues. **Antzezleak:**Itziar Atienza, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Getari Etxegarai, Leire Ruiz, Naiara Arnedo. **Lekua:** Viktoria Eugenia Club aretoa, Donostian. **Eguna:** Uztailak 18.

Betidanik omen dakizkigun gauza horiek arriskutsuak izaten dira, are gehiago lagun artean gaudela. Adibidez, jabetzen garenean haiek *betidanik* dakiten hori guretzat berri-berria dela. Are gehiago betidaniko kontu horretaz jabetzeak erabateko aldaketa ekartzen badio gure bizitzari, edo ordura arte izan dugun mundu-ikuskerari behintzat.

Erlauntzaren etsenplua ekarri du Kepa Errastik taulara, aspaldiko lagunak diren sei emakumeen kontuak irudikatzeko: erlauntzean bezala emango dute elkarrekin asteburu zoro bat, eta, erleen antzera, anabasa itxura hartuko du enkontruak. Baina, erleen antzera berriz ere, elkarrekin komunikatuz eta kolaboratuz seiak irtengo dira garaile betidanik jakin behar zituzten kontuetatik.

Errasti polifazetikoaren azken testua *Mami Lebrun* antzezlanaren ardatz izan zen —gogora dezagun Donostia Saria eskuratu duela lan horrek aurten—, eta antzezle bezala bai obra hartan bai *Txarriboda*-n ikusi genuen. Oraingo honetan, ordea, nik esango nuke nagusitasunez gainditu duela antzerki-gidoilari eta antzerkigile izatearen arteko marra fina, hizkuntzaren baliabide jatorrak menperatuta —hori aspalditik zeraman bere patrikan— eta, batez ere, gaurko jendartearen gai mamitsuei fin, umoretsu eta naturaltasun paregabez helduta. Horri guztiari gehitzen badizkiogu emakumeei emandako protagonismo eztabaidaezina eta argumentuaren garapenak ekarri dituen ezuste zaparrada, dialogoen bizitasuna eta emozioen dosifikazio bikaina, atoan ulertuko dugu behingoagatik aurkitu dugula Euskal Herriak behar zuen komedia inteligentearen eredua.

Fernando Bernuesen espazio eszenikoan —Edi Naudo izan da eszenografiaren eta gauzakien egilea— zurezko fruta-kaxak izan dira nagusi, eta eremuaren disposizio garbiak dramaturgiaren alde jokatu du. Era horretan, antzezlaneko sei lagunak sukaldean egon dira laranja zukua baino gehiago Cointreau litroka zeramaten koktelak prestatzen, erdiko mahaian kokaina-marrak kiloka esnifatzen, bazterreko sofaren alboko mahaitxotik diskurtsoak ematen eta atzeko geletatik batek daki zer egiten.

Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, erritmo bizia baina sanoa hartu du emankizunak, aspaldion garaikidea izan nahi duen antzerki komertzialean hain modan jarri den abiadura zentzugabe bezain hutsaletik urrun. Bazen garaia! Eta antzezleak, berriz, dena emanda ibili dira hasieratik amaitu arte, jakitun izanik esku artean zeukaten testua opari ederra zela bai beraientzat bai ikusleentzat. Zalantzarik gabe Aitziber Garmendiari egokitu zaio rol nagusia, testuak hala eskatuta eta bere aktore-dohain paregabeak baliatuta, baina argi dago oso lan korala dela, eta alde horretatik ikustekoa zen lagun bakoitzak uneoro hartzen zituen jarrerak, egiten zituen imintzioak eta elkarri botatzen zizkioten epelak. Ordainezina, benetan. Ez galdu, gero

Diario Vasco 12/03/2019  Carlos Gil
dFeria


TEATRO

# Divertida comedia de mujeres sin rencores

Carlos GIL

Reunidas seis amigas para la despedida de soltera de una de ellas en alojamiento rural es el espacio propicio para desplegar un rosario de situaciones costumbristas, reconocibles, por la pericia del texto y, sobre todo, por la conjunción de intérpretes y dirección en los mismos objetivos en el plano de actuación y de establecimiento de claves estéticas, una comedia de mujeres que escapa a los tópicos, pese a moverse en unos territorios en los que siempre se encuentran muchas trampas. Como en todo núcleo humano, la amistad contiene asuntos pendientes, desencuentros y ocultaciones.

No iba a ser menos entre estas seis mujeres, una recién salida de un cáncer, otra abiertamente lesbiana, la que parece llevar la voz cantante sin pareja voluntariamente, una con tres hijos, otra con una hija ficticia y la casadera, que descubre que su novio es un machito de bragueta fácil. En este ambiente transcurre con situaciones duras, con momentos descacharrantes de risa y otros que se logran conducir hacia la tragicomedia y que acaban con un mensaje positivo, todo se arregla hablando, sin rencores.

**EL ENJAMBRE**
**Dirección:** Mireia Gabilondo
Vaivén Producciones
Antzoki Zaharra - Donostia - 11-03-19 - dFERIA

Hay una idea de libertad, de amistad, una visión del mundo. Un amor secreto entre la lesbiana y la madre de tres hijos. La maternidad como polémica. Mujeres reconocibles, con hábitos de consumo de estimulantes reconocibles, sin complejos ni ñoñerías.

En esa normalidad se halla su valor intrínseco, además de la fluidez de las actuaciones en lo individual y en lo colectivo en un espacio escénico realmente sugestivo.